

## Mondragon Unibertsitateko Diseinu industrialeko ikasleen proiektuaren aurkezpena.

2010/09/02

Irailak 8, 9 eta 10ean, Mondragon Unibertsitateko Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoko ikasleek beren proiektuak Arrasateko KulturAte aretoan aurkeztuko dituzte. Proiektu hauek Debagoienako Mankomunitateak, Iseak, Saiolanek, Athlonek eta Mondragon Unibertsitateak bultzaturiko KimuBerri ekimenaren esparruan kokatzen dira. KimuBerri ekimenaren azken helburua Debagoienako gazteriaren ekintzailetasuna sustatzea da. Aurkeztuko diren proiektuek Aisia, Kirola eta Gazteriaren gai jorratzen dute, 2015eko Debagoienan kokatuta, zentzu honetan produktu prospektiboak aurkezten dira. Ikasleek gai hau Project Based Learning metodologia erabiliz landu dute, Debagoienako etorkizunerako 13 produktu berritzaile garatzea lortu dute.”

